

SECCIÓN AMENA



Bein topatu zuten Fernando Amezketarra lau gaztek, beren ustez zerbait zekitenak eta pentsatu zuten far egitea.

Fernando ia berengana alderatu zanean, asi ziran ojuka okasioan ari baitziran bezela eta beretako batek dio:

—Jaunak, Fernandok aterako gaitu dudatik, bada onek jakingo duen gauza da ¿ezta egia?

—Bai, bai, diote denak, izan dedilla orrek esaten duena.

—Jakín nai genuke, dio orduan batek, zenbat pisu oteduan illargiak.

—¿Eta zuek, gizon jakintsuak, etzerate lotsatzen orren gauz erraza ni bezelako nekazari ezjakín bati galdetzen?

Ori esaten ari zan bitartean egin zuen makilla puntarekin bolla jira edo *círculo* bat lurrean, bota zuan arrasto bat ezkerretik eskuiera eta beste bat goitik beera egiñaz bollajira lau puska.

Puska bat erakutsiaz galdetzen dio bati:—zenbat da au?—Ori laurdena. ¿Eta au? dio bigarrenari erakutsiaz beste puska.—Ori ere laurdena.—¿Eta au? erakutsiaz beste puska irugarrenari.—Beste laurdena.—¿Eta au? galdetzen dio besteari markatuaz beste puska.—Laurdena ori ere.

—Orduan gauza jakiña da zenbat pisu duen illargiak: Libra bat justu justua, ez geiago eta ez guchiago, esaten du eta joan zan utzirik lotsaturik gazte aiek.

ENRIKE ELIZECHEA.

